

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobarien eskaera

Datorren 2024ko abuztuaren 31ra arte, hau barne, interesdunek (hiri) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobariak eskatu ahalko dituzte. Aipatu hobariak kuota osoaren ehuneko 20tik ehuneko 95era arte izan daitezke, errenta eta familia unitateko kide kopuruaren arabera.

Aipatutako hobariak etxebizitza bezala bakarrik erabiltzen diren ondasun higiezinatarako izango dira, baldin eta etxebizitza subjektu pasiboaren ohizko bizilekua bada, bertan bizi den familia unitateko kideetako inork ez badu etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezinik.

Kuota osoaren hobariaren ehunekoa familia-unitateko kide-kopuruaren eta familia-unitateko kideen multzoaren errentaren arabera izango da, koadro honi jarraiki:

FAMILIA-UNITATEKO KIDE-KOPURUA	21.000 EUROTIK BEHERAKO ERRENTAK	21.001 ETA 29.000 EURO BITARTEKOAK	29.001 ETA 38.000 EURO BITARTEKOAK	38.001 ETA 42.000 EURO BITARTEKOAK
1	%75	%20	%0	%0
2	%90	%75	%20	%0
3	%95	%80	%60	%30
4	%95	%95	%80	%75
5 edo gehiago	%95	%95	%90	%90

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Eskaera orria (udal bulegoetan eskuragarri dago).
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpena (PFEZ) edo azken urtean izandako sarreraren egiaztagiria zinpeko deklarazioarekin.
- Familia eroldaren ziurtagiria.

Araia, 2024ko uztailaren 26a

Alkatea
TXELO AUZMENDI JIMÉNEZ